

Erf.: 2015eko Kontu Orokorra  
Tx. zk.: 16/

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

2015eko Kontu Orokorraren onarpena.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Lehenengoa: 2016ko maiatzaren 24an, udal kontu hartzaileak, 2015eko Kontu Orokorraren txostena egin eban.

Bigarrena: Kontu Orokorra aurkezteko iragarkia 2016ko ekainaren 22ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Hirugarrena: Alegazioak aurkezteko epean ez da ezelako alegaziorik aurkeztu.

#### **b) Oinarri juridikoak**

Bakarra: Kontu Orokorraren onarpena dala eta, 10/2003 Foru Arauak honakoa dino:

62. artikuluan: "1. Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketen berri agertu behar dute.

2. Ondorengoek osatuko dute kontu orokorra: a) Erakundearena berarena. b) Erakunde autonomoena. c) Haien menpeko sozietate publikoena. d) Enpresa-erakunde publikoena. e) Atxikitako partzuergoena, betiere haien egintzak Toki Erakundearen erabakitzeko ahalmenaren menpe badaude, modu zuzenean edo zeharkakoan.

3. Aurreko ataleko a), b) eta c) paragrafoetan aipatutako kontuek eta hala badagokio e) paragrafoan aipatutakoak ekonomi- eta ondare-emaitzak eta aurrekontuen egikaritzea eta likidazioa islatuko dituzte.

4. Aurreko ataleko 1.c) eta d) ataletan aipatutako kontuak eta hala badagokio e) atalean aipatutakoa izango dira merkataritzaren arloko araudiari jarraituz egin beharko direnak. 5. Toki erakundeek Udalaren Osoko Bilkurak zehaztutako kontuen egoera integratu eta kontsolidatuak gehitu beharko dituzte kontu orokorrera.

6. Bizkaiko Foru Aldundiak zehaztuko ditu aurrekontu mugatzailea duten erakundeen kontuaren edukia, egitura eta hura egiteko arauak”.

63. artikuluan. “Gertutu eta onesteko prozedura. 1. Toki erakundeko buruak toki erakundearen urteko egoera- orriak eta kontuak eman behar ditu, orri eta kontuoi dagokien ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen. Organismo autonomoenak, enpresa-erakunde publikoenak, sozietate publikoenak eta toki erakundeari atxikitutako eta mendeko partzuegoenak, berriz, organo eskudunek eman eta proposatuko dituzte hasieran, eta aurreko epe horretan bertan bidaliko zaizkio toki erakundeari.

2. Udalburuak gertutatuko Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen jarri behar da toki erakundeko kontuen batzorde bereziaren onespenerako.

3. Kontu Orokorra, aurreko idatz-zatian aipatutako batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrera azalduko da 15 egunetan; epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, ingerak zein oharrak aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde bereziak aztertu egingo ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat emango du.

4. Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta ingerekin batera, Kontu Orokorra udalbatzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da”.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko uztailaren 20an.

Karmele Muñoa Arrigain  
Behin-behineko Idazkaria